



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

TXOSTENA INFORME

Rosalía Herrera Yuste, Ermuko Udaleko zuzendari nagusiak honakoa

EMATEN DU JAKITERA:

Ermuko Udala ARINN elkarteko kide dela, zeina INNPULSO Sareko kide diren udal guztiek osatzen baituten, baldin eta Zientzia eta Berrikuntza Hiria bereizkuntza badute eta elkartean sartzeari dagokion partaidetza-kuoten ordaintzea onartzen badute.

2014ko maiatzaren 7ko Osoko Bilkuran Udalbatzarrak udal hau INNPULSO Sarearen Elkarteari (ARINN) atxikitzea onetsi zuela.

ARINNen helburuak ondoko hauek direla: tokiko administrazioek zientziaren eta berrikuntzaren arloan egiten dituzten jarduerak aintzatestea eta bultzatzea, sareko udalen arteko lankidetzaren bultzatzea, udalen potentzial berritzailea areagotzea eta beste udal batzuen eredu izatea, betiere ezagutzan eta berrikuntzan oinarrituta, ekonomikoki eta sozialki jasangarriagoa den beste eredu produktibo baterantz bideratzen laguntzeko.

ARRINek elkarteko hirien helburu estrategikoak lortzeko proiektuak eta jarduerak planifikatu eta egikaritu ahal izateko finantzaketa-iturri bat izateko, Udalbatzak 2019ko otsailaren 7an egindako osoko bilkuran, ARINNeko kide izateko baldintza moduan, partaidetza-kuota bat edukitzeko proposamena sartu erantsi zuela, Ministerioaren zuzkidura osatzeko eta, horrela, finantzaketa-iturri egonkorra izateko, elkartearen lan-eremu guztietan jardura eta proiektu gehiagori ekite aldera.

ARINNek 2019ko otsailaren 14an Terrassan egindako osoko bilkuran elkartearen estatutuak aldatzea eta ondoren aipatzen diren partaidetza-kuotak aplikatzea onartu zela: 500 € hiri txikientzat (20.000 biztanle baino gutxiago), 1.500 € hiri ertainentzat (20.000 eta 100.000 biztanle artean) eta 3.000 € hiri handientzat (100.000 biztanle baino gehiago).

Ermuak, hiri txiki legez, 500 € ordaindu behar dizkiola ARINNi urtean. Kopuru hori Aurrekontuaren 91200.422.01 partidan sartzen dela urtero, eta, beraz, kreditu nahikoa eta egokia dagoela ordainketa egiteko.

ARINNek, 2024ko otsailaren 13an, Madrilan, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren egoitzan egindako ezohiko osoko bilkuran, estatutuen eraldaketa bat egitea onartu zuela, aldaketarik garrantzitsuenak honako hauek izanik: elkartearen egoitza aldatzea, Kontseilu Errektorea eratzea, elkartearen gobernu-organoak betetzeko hautagaitzak aurkeztu eta bozkatzeko sistema ezartzea, bai eta horren kudeaketa ere, baina kuotaren ordainketa finkatzen duen 38. artikulua, baliabide ekonomikoei buruzkoa, alegia, bere horretan geratu zela.

Halaber, 2024ko martxoaren 7ko Ezohiko Osoko Bilkuran aho batez onartu zela Viladecanseko Udalak aurkeztutako hautagaitza (osoko bilkuren aktak erantsi dira).

Ermua Kontseilu Errektore berriaren kide izango dela hurrengo lau urtez, nahiz eta epe hori luzagarria den, horregatik

HONAKOA PROPOSATZEN DU:

LEHENENGO: 2024ko otsailaren 13ko ezohiko osoko bilkuran hartutako erabakiak onestea (bilkuraren akta eta aldatutako estatutuak erantsi dira).

BIGARREN: Telematikoki egindako ohiko osoko bilkuran eta 2024ko martxoaren 7ko ezohiko osoko bilkuran lortutako akordioak onestea. (Bi bilkuretako aktak erantsi dira).

HIRUGARREN: Juan Carlos Abascal Candas, Ermuko Udaleko alkatea, ARINN Elkarteko Udalaren ordezkari izendatzea eta Rosalia Herrera Yuste Zuzendari Nagusiaren ordezkari.